

Egin ezazu 2008. haur eta gazteen irakur gidaren azala!

Jarri zure imajinazioa dantzan edota marrazteko gaitasuna lanean eta ekin.

2008ko argitalpenen eta 2007ko liburu gomendagarrien gida da. Batez ere, guraso, gazte eta umeei zuzenduta dago.

Iaz, 7.000 ale argitaratu genituen eta, urterik urte, gero eta gehiago eskatzen dizkigute eskola eta erakundeetatik. Aldez aurretik jakin ezazu, ez dela diru-saririk egongo. Beste era bateko saria izango duzu, ze aipatutako gida Durango, Berriz, Elorrio, Zaldibar, Zornotza eta Lekeitioko eskola umeen artean banatzen baita.

Eta, ez al da sari potoloa benetan hainbeste irakurle gaitatea, eta horrenbeste begik ikustea?

Beraz, ekin lanari atontan!

Gidaren lehenengo orrian, aurkezpenaren ostean, azalaren egilearen izena jarriko dugu. Hau da, doako publizitatea ... ezagun egiteko aukera bikaina.



Aurkeztutako lanak baldintza hauek bete behar ditu:

- Margo-lanaren neurria DIN A4koa izan behar da, paperean eginda badago.
- Aldiz, ordenadorez bada DIN A5a (14,8 x 21) eta jpg formatuan bidali behar da.
- Gaiak, irakur zaletasunarekin edo liburuekin zer ikusirik izan behar du eta derrigorrezkoa da "Haur eta gazteentzako irakur gida" "2008ko argitalpenak eta 2007ko liburu gomendagarriak" esaldiak idatzita joatea.
- Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 27a da, astelehena. Pinondo etxeko lehenengo solairuan gaude, ez dago galtzerik. berbaro@berbaro.com-era bidaltzeko aukera ere baduzue. Zalantzarik izan ezkeru deitu edo email bat bidali, argibide guztiak gustura emango dizkizuegu-eta.



Etorri zaituz Berbalagunera!
Lagundu euskaldunon sarea josten!

Izena emateko:
Tel: 639.400.786
www.durango-udala.net


AISA - Etorkinentzako harrera ikastaroa

Zer da AISA?

Euskal Herrian bizi diren eta euskararekin harremanik izan ez duten kanpoko atzerritarrei zuzenduta daude ikastarook. Etorkinek hemengo gizartea, ohiturak, kultura ezagutu eta euskara ikasteko lehendabiziko urratsak emateko ikastaroa da, euskarara hurbildu eta euskal gizartean hobeto integra daitezten. zan ere, ikastunitate guztietan ikasleei aukera eskaintzen zaie beraien ohiturak eta gureak alderatzeko: janzkeran, familian, jateko orduan...

Etorkinentzako Irudizko Hiztegia doan ematen zaie. 7 hizkuntzatan dago argitaratuta: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, arabiera, berberera eta txinera, eta interneten ere badago eskegita web gunean. **Ikastaroa 60 ordukoa da, urriaren 7an hasi eta abenduaren 17an amaituko da eta astelehen, astearte eta asteazkenetan** emango dira eskolak. Dohainekoa da.

Durangoko Udalak, Euskara Sailaren eta Inmigrazio Sailaren bitartez, AISA harrera ikastaroa antolatu du 5. aldiz.



AISA ikastalde bat - 2008ko ekainean

DENDAKETAN

Euskara sailean lan egiten dugunok, hainbat ekimen antolatzen ditugu, euretako asko, Aisa, Julene Azpeitia...urtero errepikatzen direlarik. Iaz Dendaketan hasi ginen antolatzen, ezinbestekoa baita euskara merkataritzara hurbiltzea, edo zuzenago esanda, merkataritza euskarara. Bestalde, merkatariek gero eta jende gehiago euskaraz zuzentzen zaiela adierazten digute. Aurreko buletin batzuetan azaldu dugun legez, Dendaketan HABEK homologaturiko merkatarientzako euskara ikastaroak dira.

Zerotik hastekoak eta egokiturikoak. Ikastaro hauetan irakaspen oso praktikoak daude, euren eguneroko

zereginetan erabilgarriak. Iazko balorazioa oso ona izan zen, horregatik, aurreko ere, izena emateko epea zabaldu dugu, urtero aurrera eraman nahi dugun ekimena da eta.

Martitzen eta eguenetan bilduko diren talde bi osatzekotan gaude., beraz, euskara zerotik ikasteko moduan dagoen merkataririk ezagutzen baduzu, animatu eta gure telefono zenbakia eman (94 603 0016)

Ostalaritzan euskaraz

Honezkero, denok jakingo dugu Berbarok euskara sailerako egiten duen lanaren zati ederra Guk euskaraz egitasmoa dela. Merkataria, ostalari eta elkarteentzako etengabeko zerbitzua da. Lan honetan aritu garenok beti aurkitu dugu ostalariekin berba egiteko oztopoa, izan ere, zaila egiten zaie euren lanari gurekin egoteko tartea ateratzea. Guk Euskeraz zerbitzua erabil dezaten bestelako bide batzuk urratu behar ditugula uste dugu. Horregatik, ostalaritzako hitzarmen-kide gehiago lortu gurean, 2008-2009 ikasturterako kanpina berria antolatu dugu, emaitzen arabera ikasturtero errepikatuko duguna. Kanpaina honen hasiera izango dira laster kalean ikusiko ditugun ahozapiak. Tabernetatik banafuko ditugu, eta euskarazko lema bat eraman-go dute: **"Ahoan euskeraz gozo"** Lema honen bidez euskararen erabilera bultzatu nahi genuke.



Udaleko Euskararen Aholku Batzordea

Durangoko Udalak 2004an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) 2005-2008 Plan Estrategiko. Plana garatzeko herriko eragileen laguntza ezinbestekoa zen. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aholkuari jarraituz, Euskararen Aholku Batzordea eratu zen. 2008ko udazkenean gaude, eta beraz, lehen Plan Estrategiko amaitzeaz dugu. Berria egin beharra dago. Hori dela eta, aurtengo udaberrian Aholku Batzorde berria osatu du Udalak lanari ekiteko. Lehendabiziko lana euskararen egoeraren diagnostikoa egitea izan da.

Baina, zertarako Euskararen Aholku Batzordea?

Euskararen Aholku Batzordeak berebiziko garrantzia du gure herriko Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko orduan. Planak biltzen dituen helburuak lortzeko ezinbestekoa da gizarte-eragileek partehartzea. Eta ahalegin horretan, Durangoko errealitatea ezagutzen duten zenbait durangarrek osaturiko taldea ari da lanean Euskararen Aholku Batzordean.


- Batzorde** - Zinegotziak: M.J.Balier, Z. Arana, E.Zurikarai, I.Agorria.
-kideak: - Euskara Teknikaria: J.A. Atutxa
 - Besteak: M.Euba, X.Boveda, A.Gastañazatorre, K.Zarate, M.Barrena, I.Sanchez, A.Elorriaga, I.Narbaiza, F.Ruiz.

Durangoko Udaleko Euskararen Aholku Batzordeak Euskara eta Kultura Batzorde Informatiboaren bitartez ditu Durangoko Udalarekin harremanak.

BERBARO.... 1989-2009

berba, berba jan, berbatsua, berbakoa, barbaroa...
Berbaro Elkarte, 20 urte euskaraz bizitzeko aukerak sortzen

Zuek guztiok, Berbarok, 20 urte hauetan egindako bidearen oinarriak zeintzuk izan diren (eta gaur egun ere badirenak) jasotzen duen liburuxka prestatu dugu urteurrena ospatzeko. Herriari Berbaro zer den, nolakoa den eta zertarako den azaldu eta gogorarazi nahi diogu 20 urte betetzen ditugun honetan.



Urteurrenerako prestatzen ari garen ekintzen oinarrietako bat komunikazio izango da eta, beraz, Durangarren artean zabalduko dugu aipatutako liburuxka.

Bide batez, gogorarazten dizuegu, urteurrena antolatzeko kultura batzordean parte hartzeko gogoz bazabiltzatela, elkartera hurbildu zaitezketela beldur barik.

Kaixo berbarotarrok!


Hiart Zamakona naiz, Berbaroko langile berria. Lanaldi erdiz Kurutziaga ikastolako aisialdia kudeatzeko ardura izango dut. Orain arte ikastolak egin duen aisialdi eskaintzarekin jarraitu eta ideia berriak gehitzea izango da nire helburua. Euskarazko aisialdia sustatzeko hainbat ideia ditut eta ekimen honekin hasteko gaztetxoentzako ikastaro labur ezberdinak proposatzeko asmoa dut: moda diseinua paperarekin, komikia, paper birziklapena eta irudimena, arkitektura fantastikoa... Ikastolako haur eta gazteek aisialdia euskaraz gozatu dezaten, ilusio eta gogo handiz hasi naiz lanean. Hurrengorarte!



Euskara Elkarten bazkide txartela

Euskara Elkarten bazkide txartela sortu du Topaguneak. Azkoitiko Maxixatzenekoek edo Berbarotarrok, esaterako, txartel berdina izango dugu, euskara elkarte bateko kide garelako dioten txartela!

Laster gure etxeetan jaso eta dituen abantailak zehatz-mehatz ezagutuko ditugu. Besteak beste, gure ikastaro edota beriso saioetako deskontuekin jarraitzeaz gain, Euskal Herriko beste euskara elkarteek beraien bazkideei eskaintzen dizkieten deskontuak jasotzeko aukera ere izango dugu.



Berbaroko bazkide gazteenaren txartela


ESKUALDEKO EUSKARAREN AZTERKETA

Durangoko Merinaldearen A m a n k o m u n a z g o a k eskualdeko euskararen azterketa egiteko eskatu dio Berbarori.

Urrian hasi eta datorren urtearen hasieran amaituko den azterlanak, eskualde mailan euskarak duen osasuna (presentziak eta ausentziak) neurtzeko balioko du batetik, hau da, ezagutza, erabilera... datuak jasoko ditu. Bestetik, euskararen normalizazioan mankomunitateak zer egin dezakeen aztertuko da.

argitalpen berriak

Basoaren Zaintzailea



Arrazoi desberdinengatik zaigu ezaguna Errotari Mikologi Elkarte. Oraingo honetan laster plazaratuko duen komikiaren gainean hitz egin behar dugu. Komunikabideak hasiak dira albista aipatzen, izan ere, argitalpen honen ezaugarriak dituenik nekez aurki genezake.


Komikiak ondoek naturan duten garrantziaz konturazteko du helburu, eta bide batez baso eta naturarekiko errespetua bultzatu nahi du. Honetarako, errotari perretxikoa bera (Clitopilus prunulus) hartu dute protagonista; gainera, berak dauka bertan agertzen den gatazka konpontzeko giltza. 11-12 urteko gazteei zuzenduta dagoen komiki hau euskara hutsean argitaratuko dute, gainera, adituen iritziz, kalitate handiko marrazkiak ditu. Elkarteak Bizkaiko eskoletatik doan banatzeko asmoa du, dena dela, komunikabide batzuek interesa adierazi dute, beraz, baliteke ideia Euskal Herriko beste eskualde eta arlo batzuetara zabaltzea. Errotariko ordezkariak adierazi digute gazteei zuzendutako proiektu gehiago burutu nahi dituztela.

ikimilikili..klik

Uda bukatu da, udazkena estreinatuta dugu. Udako eguzkiak azalean tindatutako kolorea galtzen hasiak gara. Urte-sasoi berriak tenperatura aldaketaz gain, kolore aldaketak ere badakartza, hostoak gorri laranja bihurtzen dira, ederrak benetan. Aukera paregabea argazkiak egiteko eta erakusteko. Badago sarean, euskarazko fotolog zerbitzu libre www.argazkiak.org gunea, argazkiak gorde eta partekatzeko. Nahi beste argazki sar daitezke, ez dago mugarik eta debalde da. Bertan sartutako argazkiak libre erabiltzeko eskubidea dago.

Argazkiak argitaratzeko aukeraz gain, blog bat ere badu. Badakizue, Flickr edo Fotolog guneetako erabiltzaile euskaldunak hemendik aurrera argazkiak.org erabili.

Basoan barne argazkiak egiten zabilatzatela eta sasoiarekin ere lotuta doala..... hara! perretxikoa batekin topo egiten duzue, ikaragarri polita da, baina jangarria? Trankil argazki bat atera, www.errotari.com/foroan sartu eta zalantzak argituko dizute aditu taldea baitago horretarako prest. Egun, galdera-erantzun guztiak gazteleraz daude, baina esan digutenez galderak euskaraz egiteko aukera badago eta erantzuna euskaraz jasoko duzu, jakina.



Berbaro San Fausto jaietan!



Hurbildu txosnara! Lan pixka bat egitera, zerbait hartzera, berbarora.... Azken baten, lagun giroaz, jai giroaz, goatzera!

Laguntzaileak:



DURANGO Udala - Ayuntamiento



Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Soto